

Arimak eta sinesmenak, libre

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Lammert Kamphuis filosofo holandarrak kontatzen du Indiara egin zuen bidaian zur eta lur gelditu zela Varanasiko hoteleko leihotik hildakoak errausten ikustean. Herritarrak ondotik pasatzen ziren eta beren martxa segitzen zuten, senideek maite zuten pertsonaren gorpua sutan nola desagertzen zen begiratzen zuten bitartean. Sogyal Rimpoché Tibeteko maisu espiritualak ere harritu zen Londresera ikastera joan zenean bertakoek heriotzarekin zuten harremanarekin. «Jendeari heriotza ukatzen erakusten zaio, eta erakusten zaio ez dela ezereza eta galera baizik», idatzi zuen.

Erljioa sinesmenaz ere jabetu zen: zerua eta infernua ezarri zituen, sufri-

mendua eta etorkizuneko promesak, damuak eta barkamenak, zigorrak eta sariak. Aunitz horietatik aldentzen joan gara, baina ez gara heriotzaz patxadaz solastatu, ez ditugu sortzen dizkigun sentimenduak konpartitu eta landu. Ez balego bezala egin dugu... hurbilean tokatu arte. Eta hagitz gogorra da hori. Hotza da amaiera hutsa. Lasaigarria, sendagarria, aldiz, sinestea, benetan sinestea, zerbaitetan, libre. Eta sinesmen horiek partekatzea.

Bizi garen bitartean gure gorputza ez da gorputz soil bat izanen, gure izaera, arima eta kontzientzia baino. Esaldi hori irakurri nuenean, lehen aipatutako Kamphuis filosofoaren “Filosofía para una vida única” (Maeva, Inspira) liburu izugarri interesgarrian, sentitu

egin nituen hitz horiek. Eta inspirazio une horretan ezberdin ikusi nuen dena. Arimak gorputza uzten duenean segituan hartzen du lurra gorpua. Arima nora doan? Nik ez ditut arimak toki zehatz batean irudikatzen baizik eta hemen, gure artean, libre.

Bizitza ez da laburra, gu gara denbora galtzen dugunak, erran zuen Senekak. Nire ustez, hasi eta bukatzeak ematen dio zentzua biziari; umiltasuna ere bai. Gorrotoa gutxitzeko eta kidetasun gehiago sentitzeko ere balio behar luke, heriotzaren gaian denok goazelako tren berean. Zirkulua itxiz, hasierara itzuliko naiz. Jaio aitzinetik ere arimak badirela erranen nuke, edo hori sinestea gustatzen zait. Jaiotzea zorte handia da, eta aukera handia. •

Kopa bat ardo

**Xabier Mikel
Errekondo**

Alaitu egiten nau kopa bat ardo eskuan euste hutsak irribarre bihurria ateratzeraino, bai baitakit sentsazio ugari eta ezberdinez betetako abenturara jauzaraziko nauela.

Txuri zein beltz, sudurrera hurbildu eta sentitu egingo ditut ardoaren hegiak ardoa osoa, kolore magikoetan, beira txuri mehean isurtzen dituen malko lodiak irristan, itsas brisaren kolpe lez sakon sudurreratuz, mihi bazterretatik eta aho sabaitik eztarrian gorpuztuz barrura, sabelera, begi itxietatik ikusiz, dastatuz...

Eskuan kopa bat ardo daukanak altxor bat dauka. Ardo trago bakoitza bat eta bakarra da. Hurrengoa beste bat da. Bera, ni eta ingurua, hiru protagonistok aldakorrek baikara, ala ez duzu inoiz sentitu bi girotan edandako kopa ardoak sentsazio ezberdinak eragitea nahiz etiketa berdineko botilakoak izan?

Alaitu egiten nau ardoak, irekiz nire poro oro eta begien kliska bakoitzean eskuz maitekiro zaindutako Arabako mahasti zaharretako lurrinez ene azal sentibera blaitzeraino.

Errioxa jatorri izendapena (567 upategi) bodega-enpresa ekoizle handien es-

kuetan dago eta mozkinak biderkatzea dute xede bakar. Nola ez, upategi txikiak aspalditik sentitzen dira kaltetuak sor-markak ez dituelako beren lana eta berezitasunak zaintzen, eta gaur da eguna 15 upategik Errioxa abizena alboratu eta Arabako Mahastiak jatorri ize-na sortu duteneko.

Nago baina sor-marken berezko gaitza dela beren printzipioak mahats zukua lez hartitzen uztea parte direnen interesen arabera.

Nik, halere, upategi ausarten eta Arabako mahastien alde, kopa bat ardo eskuan, topa! egingo dut. •